

UDAZKENEKO ERAKUSLEIHOEN ARABAKO VII. LEHIAKETA

Bazkide hori:

Aurten ere, AENKOMER Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresariok **Udazkeneko erakusleihoen Arabako VII. lehiaketa** martxan jartzen dugu: horren bidez **zure komertzioa bultzatzen jarraitzeko eta are erakargarriagoa egiteko ideia** eskaini nahi dizugu.

Honelako ekimenekin zabaldu nahi dugun ideia da **komertzioa erabat bizia eta dinamikoa dela**. Ekintza hauek **komertzioa dinamizatu** egiten dute eta sektorearen **profesionaltasuna islatu** ere bai. Profesionaltasuna funtsezkoa da gaur egun; horregatik uste dugu garrantzitsua dela zuk ere ekimen honetan parte hartzea.

Honekin batera lehiaketaren oinarriak bidaltzen dizkizugu, jakingarri guztien berri izan dezazun: sariak, gaia, izena emateko data, epaimahaia eta abar.

Zalantzarik izatekotan, edo informazio gehiago behar baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan:

AENKOMER ARABAKO MERKATARITZA ETA ZERBITZUETAKO ENPRESARIAK

Aiztogile kalea, 61

945 12 35 00

administracion@aenkomer.com

Beti legez, zure esanetara gaituzu. Jaso ezazu agur bero bat.

Jon Andoni Aspuru Oribe
AENKOMERreko lehendakaria

Edurne Parro García
AENKOMERreko Zuzendari Kudeatzailea

UDAZKENEKO ERAKUSLEIHOEN ARABAKO VII. LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Helburua:

Helburua udazkeneko erakusleihoak apaintzeko merkatarien gogoia piztea da, horrek komertzioa dinamizatu baitezake.

2. Izena ematea:

Arabako **merkataritza establezimendu guztiak** parte hartu ahal dute. Horretarako 945 12 35 00 telefonora deitu behar dute, edo mezu bat bidali administracion@aenkomer.com helbidera eta izena emateko orriarekin batera ordainagiria helarazi **irailaren 9a baino lehen**.

Bazkideentzat izen-ematea doakoa izango da; bazkide ez direnek 40 € + BEZ ordaindu behar dute.

Argazkia bidaltzea: Era berean parte hartzaileek lehiatzera aurkeztu duten espazioaren argazkia administracion@aenkomer.com helbidera bidali behar dute, **irailaren 24a baino lehen**. AENKOMERrek eskubidea izango du hautatzen diren espazioen argazkiak bere euskarri komunikatiboetan erabiltzeko.

3. Erakusleihoak erakustea:

Erakusleihoak irailaren 28tik urriaren 10ra izango dira ikusgai, eta horretarako argiztatuak egongo dira 10:00etatik 22:00etara. Tarte horretan agerian egongo da lehiaketaren bereizgarria; hala egin ezean establezimendua lehiaketatik kanpo gera daiteke.

4. Gaia librea izango da, **udazken** garaian girotua, eta establezimenduak saltzen dituen produktuak edo artikuluak erakutsi behar dira bertan.

5. Sarien zerrenda:

BOZKETA TEKNIKOA

Lehen saria: 1.000 € + plaka + 1.500 €-ko publizitatea Diario de Noticias de Álava egunkarian

Bigarren saria: 600 € + plaka + 1.500 €-ko publizitatea Diario de Noticias de Álava egunkarian

Hirugarren saria: 400 € + plaka + 1.500 €-ko publizitatea Diario de Noticias de Álava egunkarian

Erakusleihoan euskara ondoen erabiltzeagatik saria: 300 € + plaka + 1.500 €-ko publizitatea Diario de Noticias de Álava egunkarian

HERRITARREN BOZKETA

Lehen saria: 300 € + plaka + 1.500 €-ko publizitatea Diario de Noticias de Álava egunkarian

Balorazio teknikoan hainbat establezimenduren arteko berdinketa izanez gero, epaileek establezimendu horiek berriro ere puntuatuko dituzte.

6. Parte hartzea errazteko, **herritarren bozketa** Facebook-en bidez egingo da. Esteka hau sakatu behar da:

Ondoren, Udazkeneko Erakusleihen Arabako VII. lehiaketaren txokoan klikatu, maiatzaren 20a baino lehen. Esteka honen bidez, bozketa teknikoan lehenengo 15 establezimendu aukeratuen artean bozkatu beharko dute herritarrek. Eta sariduna, haien artean bozkatuena izango da.

Lehiaketa indarrean dagoen bitartean "Atsegin dut" klikatuz gero, 50 €-ko 3 opari txartel zozketan parte hartuko duzu, lehiaketa parte hartu duten establezimenduetako baten erabiltzeko. Urriaren 5an argitaratuko da sarituaren izena AENKOMERren Facebook orrian.

7. Epaimahaia eta balorazio irizpideak:

AENKOMER, Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresariak epaimahaia izendatuko dute erakusleihen apainketan eskarmentu handiko profesionalen artean. Profesional horiek Arabatik kanpokoak izango dira, inpartzialak direla bermatzeko. Epailleek irailaren 28tik aurrera erakusleihen guztiak puntuatuko dituzte banaka-banaka. Epaille **guztien puntuazioen batez besteko altuenak** lortzen dituzten establezimenduak izango dira sarituak.

Epaimahai teknikoak honako **arlotan** puntuatuko ditu, garrantzia erlatiboaren hurrenkeran:

1. Sormena eta originaltasuna	1 - 10 puntu
2. Produktua nola erakusten den	1 - 10 puntu
3. Argiztapena	1 - 10 puntu
4. Kromatistika	1 - 10 puntu
5. Lanketa eta akabera	1 - 10 puntu
6. Bai Euskarari ziurtagiria izateagatik	5 puntu (* "Erakusleihoan euskara ondoren erabiltzeagatik" ematen den sariaren kasuan balioetsiko da soilik)

Epaimahaiaren erabakia ezin izango da eztabaidatu. Sarituen izenak **2020ko urriaren 8ko** ekitaldian emango dira ezagutzera. Ordura arte irabazleen izenak ez dira argitaratuko; hau da, **sarituak ere ez dute alde aurretik ezer jakingo**. Hortaz, parte hartzaileetako batek ezin badu ekitaldira bertaratu, ordezkari bat bidali behar du saria jasotzeko, hala egokituz gero.

8. Lehiaketa honetan parte hartzeak baldintza hauek onartzea dakar berekin.

9. Antolatzailea: AENKOMER Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako enpresariak
Laguntzaileak: Arabako Foru Aldundia, Diario de Noticias de Álava eta Bai Euskarari.



**ARABAKO OTOÑO ERAKUSLEIHOEN VII. LEHIAKETA
IZENA EMATEKO ORRIA**

AENKOMER Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresarien Arabako Elkarteak **Arabako Udaberriko Erakusleihen VII. Lehiaketa** antolatu du. Bertan parte hartzeko fitxa hau bete eta bidali egin behar duzue, **irailaren 9a baino lehen**. Bertan lehiaketan parte hartuko duten establezimendu guztiak adierazi behar dituzue.

Izena ematea doakoa da elkarteko bazkide baldin bazarete. Bestela 40 € (gehi BEZ) ordaindu behar duzue. Hala izatera, izena emateko orriaren batera, banketxearen ordainagiria aurkeztu beharko duzue. Kuota bat ordaindu beharko da aurkezten den establezimendu bakoitzeko

Datuak:

Enpresaren egoitza soziala: _____
IFK/IFZ: _____
Komertzioaren izena: _____
Tel.: _____ E-posta: _____
Harremanetarako pertsona: _____

1. establezimenduaren helbidea: _____
KP: _____ Udalerria: _____

2. establezimenduaren helbidea: _____
KP: _____ Udalerria: _____

3. establezimenduaren helbidea: _____
KP: _____ Udalerria: _____

Bazkidea: doan. Elkartearen izena: _____

EZ bazkidea: 40 € + BEZ Rural Kutxa: 3008 0236 34 1309006128

Egiaztagirian, mesedez, establezimenduaren izena jarri.

Dokumentazioa AENKOMER elkartearen egoitzara bidali (Aiztogile kalea, 61, 01001. Gasteiz) edo posta elektronikoz administracion@aenkomer.com helbidera.

Horrez gain, erakusleihoaren argazki bat bidali behar duzue **irailaren 24a** baino lehen. Gogora ezazue erakusleihoak **irailaren 28tik urriaren 10ra arte** egon behar direla erakusgai, urriaren 8an sariak banatuko baitira.

Zigilua eta merkatariaaren sinadura.

_____, 2020ko ____-(a)ren _____

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (2016ko apirilaren 27koa) ezarritakoa betetze aldera, AENKOMER – ARABAKO MERKATARITZA ETA ZERBITZUETAKO ENPRESARIAK elkarteak jakinarazten dizu zure datuak zurekin dugun harremana kudeatzeko jaso eta kudeatu egiten ditugula. Elkarteak neurri teknikoak eta antolamenduzkoak hartu ditu, konfidentziasuna bermatzeko. Honen bidez horretarako baimena ematen duzu. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, lekualdatzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu. Doakoa da. Horretarako, tratamenduaren arduradunari idatzi behar diozu eta erreferentzian RGPD jarri. Helbidea honako hau da: AIZTOGILE KALEA, 61, GASTEIZ, 01001, ARABA

[] Berariaz onartzen dut mezu komertzialak bidaltzea